

**5. BALIABIDEA
DIAGNOSTIKO EREMUEKIN ZERIKUSIA DUTEN ZENBAIT
PROPOSAMEN ETA BAKOITZAREN ANALISIA-EBALUAZIOA
AHALBIDETU DEZAKETENAK.**

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

1. eremua: HEZKUNTZA POLITIKA.

Elkarbizitza eraikitzen da hezkuntza komunitatearen kideen artean sortzen diren prozesuen bitartez, harreman desberdinez eta elkarreraginaren bitartez. Kalitatezko elkarbizitza batek eraikitzea sustatzen du:

- ✓ Norberaren eta gainerakoen ongizatean oinarritutako ikastetxe-kultura.
- ✓ Estereotipoak (sexu-generoa, etnia, kultura, gizarte klasea, ezaugarri fisiko edota psikikoak, aukera sexuala...) etengabe indartzen dituen dominazio-sumisioa paradigma maila guztietan gainditzen duen ikastetxe-egitura (antolamenduan, denboran, komunikazioan, curriculumean...)
- ✓ Norberak bere buruarekin eta besteekin harreman positiboak eta gustukoak.
- ✓ Inguruaren etengabeko hobetze eta eraldatze konpromiso soziala eta pertsonalean oinarritutako harremanak
- ✓ Irakaste-ikaste prozesuen optimizazioan eragina duen eskola-klima.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
KOMUNITATEAK DEFINITZEN DU ZER ULERTZEN DUEN KALITATEZKO ELKARBIZITZAZ IKASTETXEAN	0- Ez dago deklarazio zehatzik	
	1- Badago deklarazio bat ikastetxeko dokumentazio ofizialean baijan ez datorrela bat ikastetxeko eguneroko kulturarekin. Formalagoa da erreala baino.	
	2- Bere garaian ikastetxeak egindako deklarazio bat dago.	
	3- Badago deklarazio bat ikastetxeko estamentu guztien partaidetzaz eta kontsensuz egindakoa. Erreferentzia markoa da eta eguneratzen doa.	
HEZKUNTZA KOMUNITATERAKO ELKARBIZITZA GUNEEN ANTOLAKETA ETA PROGRAMAZIOA	0- Ez dago programazio zehatzik eta ez dira ere kontenplatu komunitate guztiarentzako elkarbizitza guneak..	
	1- Ez dago programazio zehatzik baina bai estamentu batzuen arteko topaguneak.	
	2- Hezkuntza komunitaterako, ikasleentzat, irakasleentzat, familientzat, AZPentzat programatzen dira puntualki topaguneak.	
	3- Ikasurtearen zehar planifikatzen eta programatzen dira topaguneak hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eta inplikazioa lortuz: ikasleak, irakasleak, familiak, AZP.	
ELKARBIZITZA- BEHATOKIA SUSTATU	0- Ez dago.	
	1-Diziplina batzorde bat dago bilera egiten duena bakarrik diziplina arazo larriak zigortzeko.	
	2- Horrelako zerbait dago bilera egiten duena diziplina arazo larriak daudenean eta irtenbideak eta hezkuntza ordain beharrak bilatzen dituenak.	
	3- Elkarbizitza-behatokia dago eta elkarbizitza osasuntsua eta harreman positiboak sustatzen ditu.	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO:

- Justiziaren eta ekitatearen etikan kokatu hezkuntza ekintza guztiak.
- Ikastetxearen harreman eta ekintza eremu guztietan hezkidetzaz sustatu.
- Hezkuntza komunitatearen estamentu guztien artean informazioa bideratu eta komunikazioa kudeatu.
- Familien partaidetza eta korresponsabilitatea sustatu.
- Ikastetxearen gune, erabakiak hartzen eta ekintza guztietan ikasleen partaidetza aktiboa sustatu.
- Kolektiboki sortuta eta ebaluatutako elkarbizitzaren gestio demokratikoaren proiektu bat sustatu.
- Ikastetxean bertan prestakuntza lehenetsi. Baliabide materialak eta pertsonalak eskaini Elkarbizitza Plana aurrera eramateko.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

2. eremua: ELKARBIZITZAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA

Elkarbizitza positiboa eta gustukoa sustatzeak esan nahi du hezkuntza-komunitateak arautegi bat diseinatu eta onartu behar duela. Arautegi horretan zehaztuta etorriko da komunitate horrek zer ulertzen duen kalitatezko elkarbizitza aritzen denean eta nola kudeatuko dituen era eraikitzaile eta pazifikoa batean gizabanakoen artean sortzen diren gatazkak. Pertsona guztien betebeharrak eta eskubideetan oinarritutako arautegi bat da.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	<i>Egoera ikastetxean</i>
HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOAN INPLIKATU ELKARBIZITZA- NORMATIBAREN ERATZE ETA ZABALTZE LANEAN	0- Ez dago hezkuntza komunitatearen inplikaziorik.	
	1- Badaude pertsona sentibilizatuak arautegi bat bultzatzeko ikastetxean..	
	2- Ikastetxearen zati batek parte hartu du, prozesu honetan beste zatia inplikatzeko geratzen da..	
	3- Ikastetxean beretzat hartzen duten arautegian parte hartzen ari da komunitate osoa hausnartzen, eratzen eta ezagutzera ematen.	
GATAZKA EGOERAK KUDEATZERAKOAN ETA ERABAKIAK HARTZERAKOAN ARAUTEGIA IZAN ERREFERENTE GISA PERTSONA GUZTIENTZAT	0- Egungo arautegia ez da ikusten erreferente gisa ikastetxean, ez da ezagutzen eta ez daude jarraibide bateratuak.	
	1- Gatazka larri aurrean arautegi ofizialera jotzen da beharrezkoa denean.	
	2- Puntualki aditzera ematen da arautegia: ikasturte hasieran, bileretan...	
ARAUTEGI BATEZ HORNITZEA PERTSONA BAKOITZAREN AUKERA ETA TRATUEN BERDINTASUNA BERMATZEKO	0- Ez dago ikastetxeko arautegi propiorik, arautegi ofiziala aplikatzen da.	
	1- Egindako arautegia hutsegite eta zigorren tipifikazio bat da.	
	2- Eskubideak zehazten ditu eta betebeharrak azpimarratzen ditu alde aurretiko ekintzak proposatu gabe.	
	3- Pertsona bakoitzarentzat aukera eta tratuen berdintasuna bermatzen du eta kalteak erreparatzeko neurriak kontenplatu ditu harremanak berrezartzeko: bitartekaritza, elkarrizketa...	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Hezkuntza komunitatearen pertsona bakoitzaren ongizaterako arautegi bat sortu berme bezala ikastetxea osatzen duten pertsona guztien ekarpenak jasotzen.
- Ikastetxearen jardura, gune, denbora eta abar guztietan ekiteko hezkuntza ekintzak proposatu elkarbizitza positiboa sustatzeko.
- Elkarbizitza eta elkarrizketa laguntzen duten eskolaz kanpoko ekintzak sustatu.
- Gatazka aurrera aritu garapen pertsonalerako eta komunitariorako aukera gisa.
- Gatazka ebazpen pazifikoen esperientziak zabaldu.
- Egitura bat sortu non gatazka azaleratu eta tratatu daitezkeen ezkatatu gabe.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

3. eremua : GATAZKAREN TRANSFORMAZIO ETA ETIKA

Elkarbizitzak pertsona desberdinen arteko elkarreragina adierazi nahi du, interesak eta ikuspuntu desberdinak izanda. Hortik desadostasunak sor daitezke eta batzuetan gatazka agertu. Gatazka esanda, zer ulertzen dugu? Inplikaturiko dagoen zati batek edo zati guztiek euren helburuen lorpen potentzialaz eta euren duintasunaz duten desadostasuna. Kalitatezko elkarbizitza batek gatazkek bizitzaren berariazko zati modura hartzen ditu, eta ulertzen du, ondo kudeatuz gero, garapen pertsonalerako iturri dela eta giza taldearentzat hobetzeko aukera dela.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
ELKARBIZITZA HOBETZEKO HAUSNARTZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO DENBORA ETA GUNEEN SORRERA	0-Ez daude programaturiko ez gunerik ezta denborarik ere	
	1-Badaude irakasleak euren kabuz sortzen dituztela euren ikasgeletan ikasleekin lantzeko elkarbizitza gaia.	
	2-Hezkuntza komunitate osoak ikasturtearen zehar puntualki hausnarketa egiten du.	
	3- Badago gune eta denboraren planifikazio bat non hezkuntza komunitateak elkarrekin hausnarketa egiten duen eta erabaki kontsentsuatuak hartzen dituen kalitatezko elkarbizitza bat lortzeko ikastetxean.	
BIOLENTZIA EZAREN CURRICULUMAREN SARRERA	0-. Ez dago kontenplaturik.	
	1-. Tutoretzaren baten edo kurtsoren baten kontenplazten da puntualki.	
	2-. Sortze prozesuan dago. Helburuak eta eduki orokorrak zehaztu egin dira.	
	3-.Egina dago, helburuak, edukiak eta jarduerak zehaztuta eta sekuentziaz daude eta, era berean, denborak egituratuak zein arlotan garatuko diren ikasturtearen zehar hezkuntza maila guztietan..	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Hezkuntza komunitatearen pertsona bakoitzaren ongizaterako arautegi bat sortu berme bezala ikastetxea osatzen duten pertsona guztien ekarpenak jasotzen .
- Ikastetxearen jardura, gune, denbora eta abar guztietan ekiteko hezkuntza ekintzak proposatu elkarbizitza positiboa sustatzeko.
- Elkarbizitza eta elkarriketa laguntzen duten eskolaz kanpoko ekintzak sustatu.
- Gatazkaren aurrera aritu garapen pertsonalerako eta komunitariorako aukera gisa.
- Gatazken ebazpen pazifikoen esperientziak zabaldu.
- Egitura bat sortu non gatazkek azaleratu eta tratatu daitezkeen ezkutatu gabe.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

4. eremua: PARTAIDETZA

Elkarbizitza parte hartzea da, ikastetxearen bizitzaren eremu desberdinetan ematen den interakzioa: antolakuntzan, gune fisikoetan eta denborazkoetan. Kalitatezko partaidetza bat lortu egiten da norberaren ekarpenak eskaini eta besteenak biltzea ahalbidetzen duten mekanismo eta estrukturak sustatzen dituen sistema eraikiz, azkenik, eremu orotan erabakiak denen artean hartzerira iristeko.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
PARTAIDETZA-KULTURA SUSTATU	0-Partaidetza itxurazkoa da eta ez da existitzen	
	1- Ikasleei eta familiei beraiei dagozkien oinarritzko kontuen berri ematen zaie, erabakiak hartzeko aukerarik ez.	
	2- Hezkuntza-komunitatean egiazko partaidetza egon dadin pausoak ematen ari dira.	
ESPAZIOAK SORTU ETA DENBORA HARTU HAUSNARKETARAKO ETA ELKARBIZITZA HOBETZEKO ERABAKIAK HARTZEKO	3- Partaidetza eguneroko praktika da eta zentroaren erabaki garrantzitsuetan parte hartu ohi da.	
	0-Ez da ez espaziorik ezta programaturiko momenturik ere.	
	1- Sentsibilizaturiko irakasleak daude, beraien inizatibaz sortu ohi dituzte espazioak gelan ikasleekin elkarbizitzari buruz hitz egiten aritzeko.	
	2- Hezkuntza-komunitate osoak ikasturtean zehar une puntaletan hausnarketan murgiltzen da.	
	3- Espazio eta denborak programatzen dira hezkuntza-komunitate osoak batera hausnarketa egin eta adostasunez zentroan kalitatezko elkarbizitza eraikitzeke erabakiak hartzeko.	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Estamentu guztien errepresentazioa eta protagonismoa bermatu eztabaida-, hausnarketa- elkarbizitza- eta erabakiak hartzeko guneetan.
- Hezkuntza-komunitatekideen artean sustatu komunikazio positiborako oinarritzko trebetasuna eta konpetentziak: ideiak eta sentimenduak adierazi, entzute eta pazientzia aktiboak, izpiritu kritikoa...
- Talde heterogeneoak bultzatu.
- Korresponsabilitatea, elkarren arteko laguntza, trukaketa irizpideekin funtzionatzaren duten taldeak sortu.
- Taldea, pertsona eta egoera bakoitzaren ezberdintasunak eta mugak onartu.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

5.eremua: EMOZIOAK, SENTIMENDUAK ETA IDENTITATEA		
Elkarbizitzak dimentsio intrapertsonala ere badu: norbera bere buruarekin biziko da bizirik egongo den une oro. Elkarbizitza honen kalitatearen oinarria bizitzan zehar izandako esperientzien ondoriozko emozioak, sentimenduak eta ideiak izango dira. Hauek, berriz, eragin zuzena izango dute beste pertsonekin eta inguruarekin eraturiko harremanen kalitatean eta ikasketetan.		
Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
AUTOEZAGUTZA ETA AUTORREGULAZIO-PROZESUAK SORTU.	0- Ez da kontuan hartzen, Sistematikoki programaturik dauden ikasketaz kanpo gelditzen den aspektua da.	
	1-Zenbait irakaslek gelan beraien iniziatibaz autoezagutzarako oinarritzko konpetentziak sustatzen dituzte.	
	2-Hezkuntza-komunitate osoak garbi du bizitza eta elkarbizitza ona izateko autorregulazioa gakoa dela eta une puntualetan hausnartzen du nola hobetu autorregulazioa eta aurrera pausoak eman	
	3- Espazioak eta denbora planifikatu egiten dira hezkuntza-komunitateak autobehaketatik abiatuta hausnartu dezan, beharrak neurtu eta denen arteko erabakiak hartu aniztasunaren onarpena aberastasun iturri gisa eta elkarren arteko errespetuan oinarrituriko kalitatezko elkarbizitzaren eraikuntzan pausoak emateko.	
KONFIANTZA ETA SEGURTASUN-KLIMA SUSTATU ZENTROKO ESPARRU GUZTIETAN	0-Ez da kontuan hartzen. Halakoa dela suposatzen da..	
	1-Disziplina indartzen da klima eta segurtasuna hobetzeko.	
	2-Tutoreztatan ekintza solteak egiten dira. Prestakuntza-plana dago autokonfiantza, segurtasuna, errespetua zein pertsonen elkarrekiko balorazioa areagotzeko estrategiak hezkuntza-komunitate osoak garatu ditzan.	
	3-Pertsona guztiak baloratzen dituen hizketa-modua erabili ohi da, autoestimua, autoezagutza eta elkarren artekoa sustatzen duena. Sentimenduak eta emozioak esparru babestuan adierazteko ekintza-programa existitzen da, haien kudeaketa positiboa edozein zirkunstantzian entrenatuz.	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Pertsona bakoitzaren protagonismoa ezberdintasunetik sustatu onarpen, konfiantza, segurtasun eta errespetu-giroan.
- Ezberdina den ekarpen bakoitzaren garrantzia azpimarratu komunitatearentzat duen balio aberasgarriagatik.
- Ikastetxeko bizitza-eremu guztietan inposaturiko estereotipo ezberdinekiko izpiritu kritikoa garatu: sexu-generoa atxikitze soziokulturala dela eta, sinesmenak direla eta, ezaugarri fisiko edo psikikoengatik, aukera sexualagatik...
- Ez estereotipaturiko jarrerak baloratu.
- Hizkuntza hezkidetzaillearen erabilpena baloratu.
- Emozioen eta sentimenduak adierazi, kudeatu eta bideratzeko oinarritzko gaitasun eta konpetentzjen garapena sustatu.
- Ikastetxeko eremu guztietan autobehaketa eta autoebaluaketa prozesuak sustatu.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

6. eremua: IRAKASTSI ETA IKASTE PROZESUAK

Elkarrekin bizitzen oinarrizko konpetentziak hiru dimentsioetan garatuz ikasten da: **IZAN, JAKIN** eta **EGITEN JAKIN**. Eskola-klima positiboak, berriz, bizitzarako gainerako ikasketen eta konpetentzien kalitatea eta garapena areagotzen du.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
GELAN METODOLOGIA PARTEHARTZAILEA SUSTATU	0-Ikasleek banan-banan egiten dute lan, une ezberdinetan azterketen bitartez ebaluatzen zaio.	
	1-Zenbait arlotan talde-lanen bat egiten dute.	
	2-Ikasleek talde-lanak egin ohi dituzte eta ebaluaketan parte hartu ere bai.	
	3- Ikasleek talde-lanak sarritan egin ohi dituzte bere ebaluaketan parte hartu eta hobekuntza-proposamenak egin ere bai.	
IKASLE GUZTIEKIKO ITXAROPEN ALTUAK MANTENDU	0-Ikasleei egindako zuzenketak negatiboan eta publikoak dira. Badakigu nortzuk diren motelak, gaiztoak...	
	1-Akatsak lorpenak baino gehiago jartzen dira agerian.	
	2-Akatsa ikasteko beharrezkotzat hartzen da eta beldurrez ez hartzeko animatzen da.	
	3- Balio handiko pertsonen trataera ematen diegu ikasleei eta hiritar arduratsutzat hartzen ditugu. (akatsak ikasleek ez dakizkiten gauzen ondorioak dira ez izatearen emaitzak)	
HEZKUNTZA INDIBIDUALIZATU	0-Ikas-taldean guztiek gauza berberak eta momentu berean egiten dituzte.	
	1- Zenbait momentutan ikasle bakoitzari arreta berezia eskaintzen diogu.	
	2- Ikai-saioen garapenean, norberaren ezberdintasunak (erritmoak, ikasteko estiloak, interesak,...) kontuan izaten dira jarduerak antolatzeko.	
	3- Eguneroko praktikan, bakartzat hartzen dugu ikaslea eta berarekin batera ikasmen-prozesuaren jarraipena egiten da.	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Ikasmen kooperatiboaren egoerak sustatu.
- Metodologia hobetzeko, aldatzeko eta dibertsifikatzeko esperientzien trukea bultzatu.
- Bizitzarako oinarrizko gaitasunak ikai-arloetatik garatu.
- Ikas-curriculumaren berrikusketa kritikoa: ikasleen konpetentziak garatzeko esangura, erabilpena eta balioa aztertu.
- Eskola-elkarte osoarentzat eguneroko bizimoduarekin lotuta eta eremu guztietara zabaltzen diren ikasmenak proposatu.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeke Gida (UEP)

7. eremua: IRAKASLAN-ESTILOA

Eskubide eta duintasunari dagokionez pertsonak berdinak direla kontsideratu eta errekonozitzeaz gain, elkarbizitza berdin edo desberdin sentitzen diren pertsonen artean eratzten da.

IRAKASLEAK, AZPk eta zentroan ohiko pertsona helduak direnek eragin handia dute egunerokotasunean eta beraen ekintzak eta estiloak zentroko harremanen kalitatea baldintzatzen dute. Ezkutuko zein ageriko curriculumetik egiten duten moldaketa-lana ikasleentzat oso garrantzitsua da.

Z E N B A I T E S T R A T E G I A	L O R P E N M A I L A A D I E R A Z L E A K	Egoera ikastetxean
OINARRIZKO AKORDIOAK HARTU	0-Ez da honi buruz mintzatzen eta norberak nahi bezala jokatu ohi du.	
	1- Batzuetan ikasleekin harremanetan aritzeko moduari buruzko hausnarketa egin ohi da.	
	2-Sarritan abordatzen da klaseko praktketan transmititzen ditugun balioen garrantzia, baita irakasleen artean zein ikasleekin harremanetan ibiltzeko modua ere.	
	3-Ikasleekin jokatzeko moduari dagokionez oinarrizko akordioak existitzen dira, haien duintasuna errespetatuz eta haien pertsona gisa garatzen lagunduz, irakasleengan jarraitzeko moduko ereduak ikusi dezaten.	
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA IRAKAS - LANAREN AUTOBEHAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO	0-Ez da kontuan hartzen hau sustatzeko prestakuntzarik.	
	1-Irakas-lanaren hobekuntza bana banako inizatibatzat hartzen da eta zentrotik kanpoko.	
	2-Irakasleen zentroko prestakuntza proposaturiko gaiekiko afinitatearen arabera sorturiko taldeetan ematen da.	
	3-Irakasleak bere burura autoebaluatzen du, bere beharren detekzioan parte hartu eta koordinaturiko prestakuntzan ere bai. Era berean, AZPrekin bateratu egiten ditu kalitatezko elkarbizitza eta hezkuntza ahalbidetzen dituzten irizpide eta jarraibideak.	

ZENBAIT EKINTZA-ILDO

- Menderatze-menpeko harremanak ezabatzeke ekimenak martxan jarri..
- Kooperazio-metodologiak erabili.
- Ikastetxeko emakumeen eta gizonen, irakasle eta Ikasle guztien interesak, ideiak, iritziak eta beharrak jaso, gizarteratze prozesuari esker ezberdinak izan daitezkeelako.
- Beste irakasleekin ezagutza, esperientziak nahiak eta beharrak konpartitu garapen profesionalean elkarri laguntzeko eta etengabeko hobekuntzarako.
- Bizitzarako gaitasunen garapenaren eta elkarbizitza positiboaren ikai-arloak norberarenak balira bezala onartu.